



## KUADRILLEN JAITSIERA 2022

**KUADRILLEN JAITSIERA:** abuztuak 31, pregoia eta gero (19:45)

Trapagarango Udalak, abuztuaren 31tik irailaren 4ra ospatuko diren San Ramon Nonatoren omenezko herriko jaiak direla eta, kuadrillen jaitsierarako deialdia egiten du. Kuadrillen jaitsiera abuztuaren 31an izango da.

Kuadrillen jaitsiera lehiaketa bat da eta kuadrillen liga barruan dago. Lehiaketa honetan herriko kuadrilla ezberdinak parte hartu ahal du. Helburua herriko Jaietan parte-hartze aktiboa izatea da.

Lehiaketa oinarri hauen arabera arautuko dira; parte-hartzaileek baldintza hauek bete behar dituzte:

### Lehiaketaren oinarriak

#### **LEHENENGO.**- KUADRILEN LIGAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Trapagarango kuadrilla izatea.

#### **BIGARRENA.**- IZEN -EMATEA

Izen-emateak:

- Kuadrillen ligarako izena emateko leku berean.
- Mamarru eta La Kuadrilla txosnetan, jaitsieraren egun berean.
- Berandu dabiltzanentzat, irteeraren unean, Olaso Jauregiaren alboan

#### **HIRUGARRENA.**- IBILBIDEA

Lauaxeta plaza-Funikular kalea -Maiatzaren Lehena etorbidea-Axular-San Jose-Navas de Tolosa-Txosnagunea.

#### **LAUGARRENA.**- SARIAK

Sariak hurrengoak izango dira:

- Originaltasunarentzako saria:
  1. saria: 100 € + trofeoa
  2. saria: 50 € + trofeoa
- Pankarta onenarentzako saria:
  1. saria: 100 € + trofeoa
  2. saria: 50 € + trofeoa



AYUNTAMIENTO  
VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARAN  
UDALA

- Kuadrilla animatuenarentzako saria:
  1. saria: 100 € + trofeoa
  2. saria: 50 € + trofeoa

**BOSGARRENA**.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla, baita Antolaketaren eta Epaimahaiaren erabakia ere, oinarri hauetan aurreikusten ez diren kasuetan. Era berean, baimena ematen zaio antolakuntzari argazkiak egin eta argitaratzeko.

Trapagarango Udalak ez du bere gain hartuko lehiaketak irauten duen bitartean gerta daitekeen edozein gorabehera edo istripuren erantzukizuna, ez parte-hartzaileentzat, ez bertaratutakoentzat.